

Ohar hau berrikusi egin da, prozesu-errore baten ondorioz, 2025eko apirileko indizearen kalkuluetan


Euskal AEko industria-prezioak % 0,8 jaitsi dira 2025eko apirilean, aurreko hilaren aldean

2024ko apirilaren aldean, industria-prezioek % 1,2 egin dute gora

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 0,8 egin dute behera 2025eko apirilean, aurreko hilabetearen aldean. Industria-prezioen azken hamabi hilabeteetako aldakuntza jasotzen duen apirileko urtetik urterako tasa % 1,2 igo da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten duenez, 2025eko apirilean aurreko hilabetearekin alderatuta prezioetan jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak Koke-lantegiak eta petrolio fintzea (% 5,3ko jaitsiera) eta Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (% 1,9ko jaitsiera) izan dira. Aldiz, prezioetan hiletik hilerako igoerarik handienak izan dituzten sektoreak honakoak izan dira: Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa (% 1,8) eta Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (% 1,9).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, 2025eko martxoaren aldean, Energiaren prezioak % 3,8 jaitsi dira, Ekipo-ondasunenak % 0,4 eta Bitarteko ondasunenak % 0,2. Kontsumo-ondasunetan, prezioak % 0,2 igo dira, batez ere, Kontsumo-ondasun iraunkorren prezioak % 0,7 igo direlako eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak ez direlako aldatu.

Urtetik urtera, 2025eko apirila 2024ko apirilarekin alderatuta, prezioen igoerarik handienak honako adar hauetan egon dira: Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (% 45,5) eta Informatiko, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa (% 15,4). Bestalde, Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea adarreko prezioak % 18,5 jaitsi dira urte batetik bestera.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2025

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	113,5	-0,8	1,2
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	134,6	-0,5	-0,3
Manufaktura-industria	115,8	-0,8	-0,9
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	126,6	-0,2	1,2
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	110,5	0,8	-0,4
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	121,6	-0,8	0,9
Kokeak eta petrolio fintzen	109,4	-5,3	-18,5
Industria kimikoa	127,4	-1,3	0,9
Botiken fabrikazioa	110,0	0,0	1,7
Kaubu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	117,0	-0,1	-0,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	113,4	0,1	1,7
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	125,6	1,8	15,4
Material eta ekipa elektriko fabrikazioa	116,4	-0,4	2,7
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	116,0	1,9	3,1
Garraiorako materialen fabrikazioa	113,7	-2,2	0,7
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	117,9	0,6	0,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	87,6	-1,9	45,5
Ura	130,1	1,7	2,9
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	122,1	0,2	0,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	115,1	0,7	1,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	124,0	0,0	0,9
Ekipo-ondasunak	115,6	-0,4	2,8
Bitarteko ondasunak	116,1	-0,2	1,0
Energia	100,3	-3,8	-1,0

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Maiatzaren 22a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren arabera sailkatutako ondasun-talde handien prezioen urtetik urterako aldakuntza positiboa izan da Ekipo-ondasunetan (% 2,8) eta Bitarteko ondasunetan (% 1,0). Kontsumo-ondasunen prezioak % 0,9 igo ziren, Kontsumo-ondasun iraunkorren prezioak % 1,2 eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak % 0,9. Azkenik, Energiaren prezioak % 1,0 jaitsi dira urte batetik bestera.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **88,48ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62